

Iñaki Murua

Badaezpada ere

Z

alantzen aurrean, badaezpada ere, Internetera jotzeko joera dugu aspaldian. Aste Santuko oporretan zeinek ez du horrelakorik egin? Berdin dio leku bat hautatzeko nahiz aukera bat ezabatzeko. Aurten, esaterako, mundu musulmana aztoratuta zebilela, eta Marokora joateko tentazioa izan arren, lurralde hori –hainbat informaziok leku ez segurutzat jotzen zuelako– aukeraz kanpo geratu da, badaezpada ere.

Baina, zein da gure kezka nagusia libre dugun egun bakoitzeko? Eguraldia! Badaezpada ere, Interneten begiratu ia datozen hamar egunetan zer eguraldi egin behar duen. Jaenera joango ote ginatkeke, Cazorla mendizerra ezagutzera? Kia, Interneten zioenez, eguraldi eskasa egingo zuen Andaluzia osoan eta badaezpada ere...

Zenbat jolas egin dezaketengurekin egoera politiko-soziala dela-eta edo, beste gabe, eguraldia aitzakia/arrazoi harturik? Eta zeinek ez daki, urtaro honetan bereziki, zeinen aldakorra den eguraldia? Gainera, ahaztu al zaigu zenbat aldiz huts egingen duten eta zeinen gutxitan asmatu? Guk loteria adina edo, baina badaezpada ere... ez gara joan nahiko genukeen paraje horretara joaten. Beste leku batzuk begiratzen ditugu eta arrautza frijitua non zangoa han! Zer kulpa ote dauka Interneten eguraldi ona egingo duela jartzeko hainako indarrik ez daukan lurralde gizajoak? Eta guk hautatu dugun probintzian aurreikusitako eguraldia egin al du? Erabat asmatu al dute? Ez! Baina egokitzen asmatu dugu eta pozik ibili gara gainera. Jaenera joan bagina ere berdin asmatuko genuen, ziur nago, baina...

Gaztela-Leon deritzon erkidegoko probintzietan ibili gara, eta landa turismo etxeetan izan dugu aterpe. Jende oso atsegina topatu dugu kasu guztietan; ez dakit bizimodu hau ogibide bihurtu dutelako eta turiston menpe egotea beste aukerarik ez dutelako edo halako pertsonak egokitu zaizkigulako. Turistak, ordea, lanik gabe geratu zaizkie eta ezin dira euren landetxeetara xoxak uztera joan. Batzuk hipoteken menpe ere badaude eta, hala daudenak, gainera, euriborraren eraginpean lorik egin ezinik, agian. Hori bai eguraldi



DANI BLANCO

txarra, lanik eta soldatarik ez eta *eurigorra!* Euri gogorra izango da, bortitza, goian zerua eta behean lurra gelditzeko mehatxupean bizi beharra duen familiarena, bai. Horiek noiz esan edo egin ahal izango ote dute: badaezpada ere?

Egon garen auzo batean, senarra bertakoa izaki, auzoko dozena bat etxola landa turismoko etxe bihurtu zituen bikoteak. Gredos osoko aukera oparoenazela zioen, urte askoan, ingeleseko irakasle izandako emazteak. Lau artzain omen ziren auzoan bikotea landetxeen gaia jorratzen hasi zenean eta haiek ia-ia familiako bihurtu ondoren, urteen edo osasunaren eraginez itzaltzen joan ziren ahala, gero eta etxe gehiagoren jabe egin dira. Biak dira han urte osoz bizi diren bakarrak eta oraindik ere, lurra jotzen duten ahala erosi eta etxe gehiago berritzen ari dira. Dena eurek egin dute: arotz, igeltsero, arkitektu, peoi... eta benetan

emaitza txukun bezain atsegina lortu dute. Meritu galanta zutela iruditu zitzaidan, emazteak bereziki. Hark ematen baitzigun bere inguruko berri egunero, elkarrizketa ezin atseginagoak artetsu sortuz, esateko zein entzuteko patxada ez-ohikoaz. Lastima, azken eguneko azken ordu laurdenean jakin genuen, ezagutu ez genuen eta gu han ginen egunetan etorri ere egin ote zen ez dakigun senarra: Avilako Diputazioan diputatua dela eta udalean ere ba omen duela zereginen bat, badaezpada ere!

Hurrengo landetxean, biak ziren kanpotarrak, oso urrunekoa senarra eta ez hain gertukoa emaztea. Inor ez bertakoa baina hamar urte hauetan bezeroak mimoz zainduz ogibidea taxutu dute. Ondo bizitzeko beste ematen duela, bost gelako etxe txiki hark, zioten. Halako batean jakin genuen emaztearen aitona herri hartan farmazialaria izan zenaren semea zela, halaxe tokatu eta, bertan jaioa. Beraz, kasualitatez edo txiripaz, bietako bat jatorriz bertakoa zela esateko premian eta frogatzeko moduan zen eta hori, badaezpada ere, beti dator ongi.

“Goitik euririk ez dator baina, sustraiak heze ditugu” kantatu zuen Imanol Lazkanok 1991n badaezpada ere... Noski, ulertu egin genion baina ikastea ere komeni zaigu denoi, badaezpada ere! ■

«Goitik euririk ez dator baina,
sustraiak heze ditugu»
kantatu zuen
Imanol Lazkanok 1991n
badaezpada ere...